

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

14046 *6/2020 Legea, azaroaren 11koa, Konfiantzazko zerbitzu elektronikoen zenbait alderdi arautzekoa.*

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiak.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

HITZAURREA

I

2016ko uztailaren 1etik aurrera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 23ko (EB) 910/2014 Erregelamendua aplikatu behar da –barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzazko zerbitzuei eta identifikazio elektronikoari buruzko erregelamendua da eta 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen du–.

Horrela, bada, ordutik aurrera, aipatutako erregelamenduak arautzen duen guztiari dagokionez, Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legea juridikoki desplazatuta geratu da; izan ere, Europar Batasunean sinadura elektronikorako esparru komunitario bat ezarri zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko abenduaren 13ko 1999/93/EE Zuzentarau indargabetua Espainiako ordenamendu juridikora egokitzeko transposizioa egin zuen lege horrek. Beraz, lege honek gure ordenamendu juridikoa Europar Batasunaren arau-esparrura egokitu nahi du, ziurgabetasun juridikoa eragiten duen arau-hutsunerik izan ez dadin konfiantzazko zerbitzu-prestazio elektronikoetan.

Lege honek ez ditu sistematikoki arautzen konfiantzazko zerbitzu elektronikoak; izan ere, (EB) 910/2014 Erregelamenduak arautu ditu zerbitzuok, eta, Europar Batasuneko zuzenbidearen nagusitasun-printzipioa beteta, ez da erreproduzitu behar, ez osorik ez partez. Lege honen eginkizuna erregelamendu horrek harmonizatu ez dituen alderdi zehatzak osatzea da, haren garapena estatu kideen ordenamenduetan egin beharrekoa baita, eta bertan emandako xedapenak erregelamendu horren arabera interpretatu behar dira.

II

1999/93/EE Zuzentaraua berrikusi beharrean, Europako legegileek erregelamendua hautatu zuten lege-tresna gisa, zeina zuzenean aplikatzen baitzaie estatu kideei. Hautaketa horretarako arrazoia Europar Batasunaren barruko segurtasun juridikoa indartu beharra izan zen. Horretarako, zuzentarau horren lege nazionalen bidezko transposizioek barne-ordenamendu juridikoetan eragindako arau-sakabanatzea desegin behar zen; izan ere, sakabanatze horren ondorioz, estatu kideen arteko desberdintasun handiak sortu ziren, ezinezkoa zen barne-merkatuko mugaz haraindiko zerbitzu-prestazioa, eta are alde nabariagoak sortu ziren estatu kide bakoitzak aplikatzen zituen gainbegiratze-sistemei begira.

Horrela, (EB) 910/2014 Erregelamenduaren bidez, estatu kideei zuzenean aplikatu behar zaien arau-tresna bakar berean, honako hauek arautu nahi dira: batetik, bi errealitate, hau da, konfiantzazko zerbitzu elektronikoak eta identifikazio elektronikoa, zentzu zabalean, lineako zerbitzu publiko eta pribatuen mugaz haraindiko erabilera

harmonizatuta eta erraztuta; bestetik, Europar Batasuneko merkataritza elektronikoa, merkatu digital bakarria garatze aldera.

Alde batetik, identifikazio elektronikoaren eremuan, erregelamenduak elkarrekiko onarpena ezartzen du, hau da, estatu kideek Europako Batzordeari jakinarazi dizkioten identifikazio elektronikoko sistema nazionalak elkarri onartzea, lineako zerbitzu publikoetan sartzeko, helburua baita administrazio publikoekiko interakzio telematiko segurua erraztea eta mugaz haraindiko izapideak egiteko erabiltzea, herritarrak barne-merkatuaren onura guztiez baliatuz kanpo uzten zituen oztopo elektronikoa kenduta.

Beste alde batetik, ohiko sinadura elektronikoaz gain, konfiantzazko zerbitzu elektroniko kalifikatu berrien erregulazio harmonikoa ere ezartzen du, hala nola pertsona juridikoaren zigilu elektronikoa, sinadura eta zigilu kalifikatuak balidatzeko zerbitzua, sinadura eta zigilu kalifikatuak mantentzeko zerbitzua, denbora-zigilu elektronikoaren zerbitzua, entrega elektroniko ziurtatuaren zerbitzua eta web-autentifikazioko ziurtagiriak egiteko zerbitzua. Horiek guztiak konbina daitezke, zerbitzu konplexu eta berritzaileak emateko.

Araubide juridiko espezifiko bat ezartzen da konfiantzazko zerbitzu elektroniko kalifikatu horietarako, zerbitzuok dituzten gainbegiratze- eta segurtasun-eskakizun handiekin bat etorrira, eta zerbitzu ez-kalifikatuen aldean duten frogatze-garrantzi berezian islatzen da hori. Horrela, enpresen, partikularren eta administrazio publikoen arteko transakzio elektronikoaren segurtasun juridikoa indartzen da.

III

Erregelamenduaren aplikazio zuzenak ez die kentzen estatu kideei arautzen den gaiaren gaineko arau-gaitasun osoa; are gehiago, nahitaez egokitu behar dituzte beren ordenamendu nazionalak, bermatuta gera dadin nolakotasun hura benetan gauzatzen dela. Egokitze-lan horretan, izan daiteke lehendik dauden arauak aldatu edo indargabetu behar izatea edo Europako araudia osatzeko xedapen gehiago onartzea.

Ildo horretan, lege honen helburua, ut supra adierazita, (EB) 910/2014 Erregelamendua osatzea da, harmonizatu gabe utzi dituen eta estatu kideen esku dauden alderdietan. Beraz, lege honek ez ditu erregelamenduaren xedapenak errepikatzen, eta bakarrik helduko die Europako arauak estatu kideen erabakimenerako uzten dituen gaiei edo harmonizatuta ez dauden gaiei; horrela, erregulazioa koherentea eta zentzuzkoa izango da Europako araudiaren esparruan.

Horrela, proportzionaltasun-printzipioaren arabera, (EB) 910/2014 Erregelamenduan xedatutako alderdiak estaltzeko ezinbesteko erregulazioa dago lege honetan, hala nola, besteak beste, zerbitzu-emaile kalifikatuen arrisku-aurreikuspenen araubidea, zehapen-araubidea, ziurtagiri kalifikaturen bat eskatzen dutenen identitatearen eta atributuen egiaztapena, ziurtagiri kalifikatueterako estatu-mailako eskakizunen gehikuntza (esate baterako, identifikatzaile nazionalak), edo ziurtagirien gehieneko indarraldia, eta ziurtagirien indarraldia eteteko baldintzak.

(EB) 910/2014 Erregelamenduak bermatu egiten du sinadura elektroniko kalifikatua eta eskuz idatzitako sinadura juridikoki baliokideak direla; baina estatu kideen esku uzten du gainerako sinadura elektronikoaren efektuak eta, oro har, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren efektuak zehaztea. Horri dagokionez, lehengo araudia aldatzen da, konfiantzazko zerbitzu kalifikatu batez egin edo jakinarazi diren dokumentu elektronikoei frogatze-abantaila bat emanda. Ildo horretatik, frogaldia sinplifikatzen da; izan ere, nahikoa da egiaztatzea zerbitzu hori sartuta dagoela zerbitzu elektronikoaren emaile kalifikatuen konfiantzazko zerrendan –(EB) 910/2014 Erregelamenduaren 22. artikuluan dago araututa–.

Ziurtagiri elektronikoei dagokienez, lege honetan badira ziurtagiri kalifikatuak egiteari eta haien edukiari buruzko zenbait xedapen; hala ere, bost urteko indarraldiari eusten zaio. Alde horretatik, trafiko juridikoko segurtasun-arrazoak direla eta, ziurtagiri kalifikatuak berritzeko, zerbitzu-emaileei ez zaie baimenik ematen, behin baino gehiagotan, indarreko ziurtagiri batekin «kateamendu» deitutakoa egiteko. Aurrekoa

gorabehera, (EB) 910/2014 Erregelamenduak aukera ematen du ziurtagiri kalifikatuen eskatzaileen identitatea nazio-mailan aitortutako beste identifikazio-metodo batzuen bidez egiaztatzeko, presentzia fisikoaren fidagarritasunaren pareko segurtasuna bermatuko baitute. Xedapen hori aintzat hartuta, lege honek gaitasuna ematen du erregelamendu bidez arautu daitezzen hori ahalbidetzen duten baldintza eta betebeharrak teknikoak.

Pertsona fisikoei egindako ziurtagiri kalifikatuek datu hauek izango dituzte: nortasun-agiri nazionalaren zenbakia, atzerritarren identifikazio-zenbakia edo identifikazio fiskaleko zenbakia, salbu eta titularrak halakorik ez badauka. Arau bera aplikatuko da ziurtagiri kalifikatuen titularrak diren pertsona juridikoen edo nortasun juridikorik ez dutenen identifikazio fiskaleko zenbakirako; izan ere, zenbaki hori izan ezean, era uniboko eta iraunkorrean identifikatzen dituen kode bat erabili behar dute, erregistro ofizialetan jasotzen den bezala.

Zerbitzu-emaileen betebeharrari dagokienez, lege honek ezartzen du berme ekonomiko bat eratu behar dela konfiantzazko zerbitzu kalifikatuak emateko. 1.500.000 euroko kopuru bakarra ezartzen da eta 500.000 euro gehitu daitezke ematen den zerbitzu gehigarri bakoitzeko, zerbitzuetatik eratorritako arriskuak estaltzeko nahiko delakoan, kontuan hartuta merkatuko zerbitzuak era askotakoak direla, eta eskaintza handiena duten zerbitzu-emaileak zigortu gabe.

(EB) 910/2014 Erregelamenduaren eskakizunetako bat konfiantzazko zerbitzuen segurtasuna bermatzea da, produktuei, sareei edo informazio-sistemei eragiten dieten nahitako edo ustekabeko ekintzetarako. Alde horretatik, kalifikatuak izan zein ez, konfiantzazko zerbitzuen emaileek nahitaez bete behar dituzte ematen dituzten konfiantzazko zerbitzuen segurtasunerako arriskuak kudeatzeko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak, eta organo gainbegiraleari jakinarazi behar diote emandako konfiantzazko zerbitzuan eragin nabarmena izan duen edozein segurtasun-urraketa edo osotasun-galera. Betebeharraren ez-betetzea zehatzen du lege honek.

Teknologiaren bilakaerari eta merkatuko eskariei erantzuteko, (EB) 910/2014 Erregelamenduak aukera ematen du soluzio mugikorretan eta hodeian oinarritutako zerbitzu berritzaileak emateko, hala nola sinadura eta zigilu elektronikoen urrunak, zeinen ingurunea konfiantzazko zerbitzuen emaile batek kudeatzen baitu titularraren izenean. Zerbitzu elektronikoen horiek eta erabiltzaileak erabat kudeatutako ingurune batean erabiltzen diren zerbitzu elektronikoen aitortze juridiko bera izan dezatela bermatzeko, zerbitzu-emaileek segurtasun-prozedura espezifikoak aplikatu behar dituzte, eta sistema eta produktu fidagarriak erabili, komunikazio elektronikoko kanal seguruak barne; izan ere, bermatu behar dute ingurunea fidagarria dela eta erabilerak titularraren kontrol eskusiboan duela. Horrela, zerbitzuetan sartzeko erraztasunaren eta erabileraren arteko oreka lortu nahi da, segurtasuna kaltetu gabe.

IV

Lege honen bidez, Sinadura Elektronikoen buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legea eta (EB) 910/2014 Erregelamenduekin bateratu ezin daitezkeen manu guztiak indargabetzen dira.

Hala gertatzen zaie pertsona juridikoen lehengo sinadura-ziurtagiriei ere, sinadura elektronikoen lege horren bidez ezarri baitziren. Aipatutako erregelamenduak ezarritako paradigma berriaren ondorioz, elektronikoki sinatzeko gaitasuna pertsona fisikoei baino ez dagokie; horregatik ez dago xedatuta pertsona juridikoei edo nortasun juridikorik gabeko entitateei sinadura elektronikoko ziurtagiriak ematea. Zigilu elektronikoen gordetzen zaizkie haiei, faktura elektronikoen eta antzeko dokumentuen autentikotasuna eta osotasuna bermatzeko bidea ematen baitute. Aurrekoa gorabehera, pertsona juridikoen beren legezko ordezkarien sinadura-ziurtagirien bidez ere jardun ahal izango dute.

Legeak organo gainbegiratzaileri aukera ematen dio merkatuan jarduten duten zerbitzu-emaile kalifikatuei buruzko informazioa zabaltzeko zerbitzu bat izan dezan, erabiltzaileei ematen dituen zerbitzuei buruzko informazio baliagarria emateko.

Lege honen bidez, Informazio Gizarteko eta Merkataritza Elektronikoko Zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legearen 25. artikulua ere indargabetzen da, zeina konfiantzazko hirugarrenei buruzkoa baita; izan ere, hornitzaile horiek emandako zerbitzuak subsumituta daude (EB) 910/2014 Erregelamenduak araututako motetan, entrega elektronikoko ziurtatuen zerbitzuetan eta sinadura eta zigilu elektronikoak gordetzeko zerbitzuetan, batez ere.

V

Konfiantzazko zerbitzu elektronikoak lehia askeko araubidearen arabera ematen badira ere, (EB) 910/2014 Erregelamenduak xedatuta dauka, zerbitzu kalifikatuetarako, berak ezarritako betebeharrak betetzen direla aldez aurretik egiaztatzeko sistema bat. Horrela, zerbitzu-emaile kalifikatuak gainbegiratzeko lankidetzak publiko-pribatuko sistema misto bat diseinatzen da; izan ere, jarduera hori hastea ahalbidetzen duen konfiantzazko zerrendan sartzeko, Europar Batasuneko estatu kideren batean ezarritako egiaztapen-organismo nazional batek onetsitako ebaluazio-organismo batek emandako aldeko ebaluazio-txostena behar da. Hortik aurrera, zerbitzu-emaile kalifikatuek txosten hori egin beharko dute gutxienez hogeita lau hilean behin.

Bestalde, zerbitzu-emaile ez-kalifikatuek zerbitzuak eman ditzakete betekizunak betetzen direla aldez aurretik egiaztatu gabe, hargatik eragotzi gabe Administrazioaren ondorengo jarraipenak eta kontrolak egiteko daukan ahalmenarekiko lotura. Hala ere, zerbitzu-prestazioaren berri eman beharko diote organo gainbegiratzaileri, jardunean hasi eta hiru hileko epean, izan badirela jakiteko eta gainbegiratzea ahalbidetzeko baino ez.

Azkenik, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren emaile kalifikatu eta ez-kalifikatuei aplikatu beharreko zehapen-araubidea definitzen da, hargatik eragotzi gabe (EB) 910/2014 Erregelamenduaren 20.3 artikuluan jada adierazitako aukera, hau da, zerbitzu-emaileari edo zerbitzuari kalifikazioa kentzeko aukera izatea eta konfiantzazko zerrendatik kanpo uztea, kasu jakin batzuetan. Halaber, zehapenen zenbatekoak egokitu dira eta, aurreko legeen aldean, gehieneko zerga-zenbatekoa erdira murriztu da. Horretaz gain, zerga-isuna zehazteko zehapen-urkila tarteka zatitzea xedatu da, graduazio-irizpide konkurrenteak kontuan hartuta.

VI

Aurreko guztiari jarraikiz, lege hau honela antolatu da: hogeitaz artikulua, lau xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta zazpi azken xedapen.

Xedapen gehigarriak honi buruzkoak dira: lehenengoa, fede publikoari eta konfiantzazko zerbitzu elektronikoei buruzkoa; bigarrena, administrazio publikoetan erabiltzen diren sistemen ondorio juridikoei buruzkoa; hirugarrena, nortasun-agiri nazionalari eta haren ziurtagiri elektronikoei buruzkoa; eta laugarrena, Inteligentzia Zentro Nazionaleko kideen identitatearen sekretuari buruzkoa.

Lehenengo xedapen iragankorra lehendik dauden zerbitzu-emaile ez-kalifikatuen jardueraren komunikazioari buruzkoa da, eta bigarren xedapen iragankorrek indarrean uzten du Nortasun agiri nazionala eta haren sinadura elektronikoko ziurtagiriak ematea arautzen duen abenduaren 23ko 1553/2005 Errege Dekretua, zeina Sinadura Elektronikoa buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legearen erregelamendu-garapen partziala baita.

Azken xedapenetan zenbait lege aldatzen dira. Lehenengoan, Informazioaren Gizartea Bultzatzeko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 56/2007 Legea aldatzen da eta, ondorioz, herritarrei oro har garrantzi ekonomiko berezia duten zerbitzuak ematen dizkieten enpresek solaskidetzak telematikorako bitarteko seguru bat izan beharko dute,

zeina ez baita nahitaez oinarritu beharko ziurtagiri elektronikoetan. Horrela, araua malgutzen da, eta sektore pribatuan erabili ohi diren beste identifikazio-bitarteko batzuk erabiltzeko aukera ematen.

Azken xedapenetako bigarrean, Prozedura Zibilaren urtarilaren 7ko 1/2000 Legea aldatzen da, lege honetan eta (EB) 910/2014 Erregelamenduan definitutako konfiantzazko zerbitzu elektronikoen arau-esparru berrira egokitzeko xedez.

Azken xedapenetako hirugarrean, Informazio Gizarteko eta Merkataritza Elektronikoko Zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legea aldatzen da, haren erregulazioa Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2019/1150 Erregelamendura egokitzeko xedez –plataforma digitalei buruzkoa da erregelamendu hori–.

Azken xedapenetako laugarrean, azaroaren 23ko 17/2009 Legeari zazpigarren xedapen gehigarri bat gehitzen zaio –zerbitzu-jardueretarako irispide librea izateari eta jarduteari buruzkoa da legea–, haren erregulazioa Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2018/302 Erregelamendura egokitzeko xedez. Erregelamendu hori justifikaziorik gabeko blokeo geografikoa eta barne-merkatuko bezeroen nazionalitate, bizileku edo establezimendu-lekuengatiko beste diskriminazio-modu batzuk eragozteko neurriei buruzkoa da.

Azken xedapenetako bosgarrena eskumenen titulua da eta, horren arabera, legeria zibilaren, telekomunikazioen eta segurtasun publikoaren arloan Estatuari dagozkion eskumen eskusiboan babespean ematen da lege hau, Espainiako Konstituzioaren 149.1. artikuluko 8., 21. eta 29. apartatuekin bat etorritik. Horretaz gain, 3. artikulua eta azken xedapenetako bigarrena ere Espainiako Konstituzioaren 149.1.6 artikulua babespean ematen dira; artikulua horren bidez, Estuati ematen zaio legegintza prozesalaren gaineko eskumen eskusiboa. Bestalde, bigarren xedapen gehigarria Konstituzioaren 149.1.18 artikulua babespean ematen da, Estatuak administrazio publikoaren araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen oinarrien gainean duen eskumen eskusiboari loturik.

Azkenik, azken xedapenetako seigarrena eta zazpigarrena legea erregelamendu bidez garatzeari eta indarrean jartzeari buruzkoak dira, hurrenez hurren.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. *Legearen xedea.*

Lege honen xedea da konfiantzazko zerbitzu elektronikoei buruzko zenbait alderdi arautzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 23ko (EB) 910/2014 Erregelamendua osagarri gisa. Erregelamendua barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako identifikazio elektronikoari eta konfiantzazko zerbitzuei buruzkoa da eta, haren bitartez, 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen da.

2. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

Espainian finkatutako konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaile publiko eta pribatuei aplikatuko zaie lege hau.

Halaber, egoitza edo bizilekua beste estatu batean daukaten zerbitzu-emaileei ere aplikatuko zaie Espainian establezimendu iraunkor bat badaukate eta Europar Batasuneko beste herrialde bateko agintaritza eskudunak gainbegiratzen ez dituen zerbitzuak ematen badituzte.

3. artikulua. *Dokumentu elektronikoen eragin juridikoa.*

1. Dokumentu elektroniko publiko, administratibo eta pribatuek beren izaerari dagokion balio eta efikazia juridikoa dute, aplikatu behar zaizkien legeen arabera.

2. Dokumentu elektronikoen pribatuen froga konfiantzazko zerbitzu ez-kalifikaturen batez egiteko, Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 326. artikulua 3. apartatua xedatutakoa beteko da. Zerbitzu kalifikatu batez egiten bada, berriz, manu beraren 4. apartatua beteko da.

II. TITULUA

Ziurtagiri elektronikoak

4. artikulua. *Ziurtagiri elektronikoen indarraldia eta iraungitzea.*

1. Ziurtagiri elektronikoa iraungi egingo da indarraldia amaituta edo, hurrengo artikuluan adierazitako egoeretan, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren emaileek errebokatuta.

2. Ziurtagiri kalifikatuaren indarraldia ez da 5 urtetik gorakoa izango.

Indarraldi hori finkatzeko, kontuan hartuko da zer ezaugarri dituen eta zer teknologia erabili den sinadura edo zigilua eratzeko edo webgunea autentifikatzeko datuak sortzeko.

5. artikulua. *Ziurtagiri elektronikoak errebokatzea eta etetea.*

1. Konfiantzazko zerbitzu elektronikoek errebokatuta emango dute amaitutzat ziurtagiri elektronikoaren indarraldia, kasu hauetan:

a) Horretarako eskabidea egiten badu sinatzaileak, sinatzaileak ordezkatzen duen pertsona fisiko edo juridikoak, baimendutako hirugarren batek, zigiluaren sortzaileak edo webgunearen autentifikazio-ziurtagiriaren titularrak.

b) Urratu edo arriskuan jartzen bada datuen isilpekotasuna, bai sinadura edo zigilua sortzeko datuena, bai konfiantzazko zerbitzuen emailearen datuena, webgunearen autentifikazioaren datuena, edo hirugarren batek datu horiek behar ez bezala erabiltzen baditu.

c) Hala agintzen badu ebazpen judizial edo administratiboren batek.

d) Sinatzailea hiltzen bada; sinatzailearen gaitasuna judizialki aldatzen bada gerora, guztiz edo partez; zigilu-sortzailearen nortasun juridikoa azkentzen bada, edo zigilu-sortzailea nortasun juridikorik gabeko entitatea izan eta desegiten bada; eta webgunea autentifikatzeko ziurtagiria izan eta domeinuaren izenaren gaineko kontrola galtzen bada.

e) Ordezkeri-atributua duten ziurtagiri elektronikoetako ordezkaritza amaitzen bada. Hala, ordezkeriak eta ordezkatutako pertsona edo entitateak nahitaez eskatu behar dute ziurtagiriaren indarraldia errebokatzeko, ordezkaritza-harremana aldatu edo azkendu bezain laster.

f) Konfiantzazko zerbitzuen emaileak jarduteari uzten badio, baldin eta ez badio eskualdatzen konfiantzazko beste zerbitzu-emaile bati berak egindako ziurtagiri elektronikoaren kudeaketa.

g) Ikusten bada ziurtagiria egiteko eman eta bertan agertzen diren datuak faltsuak edo zehaztugabeak direla, edo ziurtagiria egiteko egiaztatutako inguruabarrak gerora aldatu badira, hala nola karguari buruzkoak.

h) Ikusten bada ziurtagiriak sortzeko erabilitako mekanismo kriptografikoek ez dituztela betetzen segurtasuna bermatzeko behar diren gutxienezko segurtasun-estandarrik.

i) Horretarako zilegi den eta konfiantzazko zerbitzuaren praktika-deklarazioan adierazita dagoen beste edozein arrazoi badago.

2. Konfiantzazko zerbitzuen emaileek ziurtagiri elektronikoaren indarraldia etengo dute aurreko apartatuaren a), c) eta h) letretan adierazitako kasuetan, eta, horretaz gain, b) eta g) letretan adierazitako inguruabarren gaineko zalantzarik izanez gero; horretarako, ziurtatze-praktiken deklarazioetan egon behar du adierazita ziurtagiriaren indarraldia eten dezaketela.

3. Hala, bada, ziurtagirien egoera kontsultatzeko zerbitzuan ziurtagiri elektronikoko bat errebokatu edo eten dela adierazi aurretik edo aldi berean, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaileak titularrari jakinaraziko dio zein den berak emandako ziurtagiriaren egoera, ahal dela, benetan entregatu eta jaso dela egiaztatzen duen bitarteko baten bidez, eta adieraziko dio zein diren ziurtagiria eraginik gabe geratzeko arrazoiak, bai eta zein egunetan eta ordutan geratuko den eraginik gabe ere.

Etendura izanez gero, eteteko epea amaituta, zerbitzu-emaileak ez badu etendura kendu, ziurtagiriaren indarraldia amaituko da.

6. *artikulua. Ziurtagiri kalifikatuaren titularren identitatea eta atributuak.*

1. Ziurtagiri kalifikatuetan, titularraren identitatea honela kontsignatuko da:

a) Pertsona fisikoei emandako sinadura elektronikoko eta webgune-autentifikazioko ziurtagirietan, hauek adieraziko dira: izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren zenbakia, atzerritarren identifikazio-zenbakia edo identifikazio fiskaleko zenbakia, edo izen horrekin argi eta garbi jasota dagoen izenorde bat. Zenbaki horien ordez beste kode edo identifikazio-zenbaki bat jarri ahal izango da; baina bakar-bakarrik titularrak zenbaki horiek ez izateko arrazoa zilegi bada, eta, edonola ere, modu uniboko eta iraunkor batean identifikatu beharko da.

b) Pertsona juridikoei emandako zigilu elektronikoko eta webgune-autentifikazioko ziurtagirietan, hauek adieraziko dira: izendapena edo sozietate-izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia. Izan ezean, beste identifikazio-kode bat adierazi beharko da modu uniboko eta iraunkor batean identifikatzeko, erregistro ofizialetan jasotzen den bezala.

2. Ziurtagiriek ordezkari-zerrenda bat onartzen badute, aurreko apartatuan adierazitako moduan ordezkaturako pertsona fisikoaren edo juridikoaren identitatea ere adieraziko da. Horretaz gain, halakorik exijitu ahal bada, dokumentu publikoa ere aipatuko da modu frogagarri batean egiaztatzeko sinatzaileak ahalmena duela ordezkatzeko pertsonaren edo entitatearen izenean jarduteko, eta, nahitaez inskribatu behar bada, erregistro-datuak ere bai.

7. *artikulua. Ziurtagiri kalifikatua eskatzen dutenen identitatea eta gainerako inguruabarrak egiaztatzea.*

1. Ziurtagiri kalifikatua eskatzen duen pertsona fisikoa identifikatzeko, identitatea egiaztatzeko arduradunen aurrean pertsonatzeko exijituko zaio, eta nortasun-agiri nazionala, pasaporte edo zuzenbidean onartutako beste edozein bitarteko aurkeztu beharko du. Ziurtagiri kalifikaturako eskabidean egindako sinadura notario batek legitimatzen badu, ziurtagiri kalifikatua eskatzen duen pertsona fisikoak ez du pertsonatu beharko.

2. Erregelamenduaren arabera, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren titularraren agindu baten bidez zehaztuko dira ziurtagiri kalifikatuaren eskatzailearen identitatea urrutitik egiaztatzeko beste baldintza eta betebeharrak tekniko batzuk eta, hala badagokio, beste ezaugarri espezifiko batzuk, bestelako identifikazio-metodo batzuen bidez identifikatzeko, hala nola bideokonferentzia edo bideo-identifikazioa, presentzia fisikoaren fidagarritasunaren pareko segurtasuna bermatuta, adostasuna ebaluatzeko organismo batek egindako ebaluazioaren arabera. Baldintza eta betebeharrak tekniko horiek zehazteko, Batasunean ezarritako estandarrak hartuko dira oinarritzat.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, nazio-mailan aitortutako identifikazio-metodotzat hartuko dira presentzia fisikoaren fidagarritasunaren pareko segurtasuna bermatzen dutenak, baldin eta adostasuna ebaluatzeko organismo batek egiaztatzen badu baliokidetasun hori, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen arloko araudian adierazitakoarekin bat etorriz.

3. Ziurtagirian adieraz daiteke nola identifikatu den pertsona fisiko eskatzailea. Bestela, konfiantzazko zerbitzuen emaileek lankidetzan jardun beharko dute zehazteko noiz pertsonatu zen azkenengoz.

4. Aurreko apartatuetan adierazitako datuez gain, ordezkari-tatributua duten sinadura elektronikoko eta zigilu elektronikoko ziurtagiri kalifikatuetan, konfiantzazko zerbitzuen emaileek hauei buruzko datuak ere egiaztatuko dituzte: eraketa eta nortasun juridikoa; ordezkari-tatributua duten pertsona edo entitatea; eskatzailearen ordezkari-tatributua ahalmenaren hedapena eta indarraldia, dokumentu publikoen bidez, halakorik exijitu ahal bada, aipatutako alderdi horiek modu frogagarri batean egiaztatzeko balio behar baitute, eta erregistro publikoko inskripzioa, halakorik eskatu behar bada. Halaber, eratze- eta ahalordetze-dokumentuak inskribatuta dauzkan erregistro publikoan egindako kontsultaren bidez egiazta daitezke eta, horretarako, erregistro publikoek beraiek jarritako bitarteko telematikoak erabili.

5. Ziurtagiri kalifikatuan eskatzailearen beste inguruabar edo atributu pertsonal batzuk agertzen badira, hala nola karguduna dela, elkargo profesional bateko kidea dela, edo zer titulu daukan, halakoak egiaztatzen dituzten dokumentu ofizialen bidez egiaztatu beharko dira, arau espezifikoekin bat etorritz.

6. Baliteke aurreko apartatuetan xedatutakoa exijitu behar ez izatea, baldin eta konfiantzazko zerbitzuen emaileak dagoeneko jasota badauzka ziurtagiri-eskatzaileen identitatea edo beste inguruabar iraunkor batzuk lehenagoko harreman baten ondorioz, eta, datuok jasotzeko, 1. apartatuan interesduna identifikatzeko adierazitako bitartekoa erabili bada, betiere identifikazioa egin denetik bost urte baino gutxiago igarota.

7. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak begiratu du konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaile kalifikatuek aukera izan dezaten artikulua honen 2. apartatuan xedatutako erregelamendu-araua egiten parte hartzeko, Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 26.6 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

III. TITULUA

Konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaileen betebeharrak eta erantzukizuna

8. artikulua. *Datu pertsonalak babestea.*

1. Konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaileek eta administrazio-organoez, hurrenez hurren, beren jarduna garatzeko eta lege honek esleitzen dizkien eginkizunak betetzeko behar dituzten datu pertsonalen tratamenduetan, datu pertsonalen babesaren arloan aplikatu behar diren legeak bete behar dituzte.

2. Konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaileek, ziurtagiri elektronikoen izenorderen bat jartzen badute, ziurtagiriaren titularraren benetako identitatea egiaztatu beharko dute, eta hura egiaztatzen duen dokumentazioa gorde.

3. Konfiantzazko zerbitzuen emaile horiek nahitaez ezagutarazi beharko dute lehen aipatutako identitatea, legez esleitu zaizkien egitekoetan hala eskatzen badute organo judizialek eta beste agintaritzak publiko batzuek, datu pertsonalen babesaren arloan aplikatu behar diren legeetan xedatutakoari jarraikiz.

9. artikulua. *Konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaileen betebeharrak.*

1. Konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaileek hau egin behar dute:

a) Lege honekin eta (EB) 910/2014 Erregelamenduari bat datorren egiazko informazioa argitaratzea.

b) Zerbitzua erabili duten pertsona fisiko edo juridikoen sinadura, zigilua edo webgune-autentifikazioa sortzeko datuak ez biltegiatzea edo kopiatzea, ez beren kabuz ez hirugarren baten bidez, ez bada titularraren izenean datuok kudeatu behar dituztela.

Hala bada, sistema eta produktu fidagarriak erabiliko dira, komunikazio elektronikoko kanal seguruak barne, eta antolakuntzako prozedura eta mekanismo tekniko egokiak

aplikatuko dira, bermatzeko ingurunea fidagarria dela eta ziurtagiriaren titularraren kontrol eskusiboa dagoela. Horretaz gain, sinadura, zigilua edo webgune-autentifikazioa sortzeko datuak zaindu eta babestu beharko dituzte baimendu gabeko aldaketa, suntsiketa edo sarbide orotatik, eta sinatzaileak une oro eskuragarri edukitzea ere bermatu beharko dute.

2. Ziurtagiri elektronikoak egiten dituzten konfiantzazko zerbitzuen emaileek kontsulta-zerbitzu bat izan beharko dute jendearen eskura, emandako ziurtagiriek balio duten edo errebokatu diren jakin ahal izateko.

3. Konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren emaile kalifikatuek betebeharrak gehigarri hauek izango dituzte:

a) (EB) 910/2014 Erregelamenduaren 24.2 h) artikulua araberako emandako zerbitzuei buruzko informazioa 15 urtez gorde beharko dute, ziurtagiria azkentzen denetik edo emandako zerbitzua amaitzen denetik aurrera.

Zigilu elektronikoko edo webgune-autentifikazioko ziurtagiri kalifikatuak pertsona juridikoei egiten badizkiete, konfiantzazko zerbitzuen emaileek ziurtagiri horiek hartu dituen pertsona fisikoaren identitatea zehaztea ahalbidetzen duen informazioa ere erregistratuko dute, prozedura judizialean edo administratiboetan identifikatzeko.

b) Gutxienez 1.500.000 euroko erantzukizun zibileko aseguru bat izan behar dute, sektore publikoko zerbitzu-emaileek izan ezik. (EB) 910/2014 Erregelamenduan xedatutako zerbitzu kalifikatuetako bat baino gehiago emanaz gero, 500.000 euro gehituko dira zerbitzu-mota bakoitzeko.

Beste aukera bat da berme horren guztiaren edo zati baten orde, berme gisa, banku-abal edo kausio-aseguru bat hitzartzea, baina, edonola ere, aseguraturiko kopuruak koherentea izan behar du aurreko paragrafoan xedatutakoari begira.

Errege-dekretu bidez aldatu ahal izango dira aurreko bi paragrafoetan ezarritako zenbaterakoak eta aseguratzeko- eta bermatzeko-bitartekoak.

c) Jarduerari utzi behar dion emaile kalifikatuak horren berri eman beharko die zerbitzua ematen dien bezeroei eta organo gainbegiraleari, jarduerari benetan utzi baino bi hilabete lehenago gutxienez, eta, ahal dela, entregatu eta jaso dela egiaztatzen duen bitarteko baten bidez. Zerbitzu-emaileak jarduerari uzteko planak barnean har dezake bezeroak beste zerbitzu-emaile kalifikatu bati transferitzea, baldin eta bezeroak horren aurka agertzen ez badira. Hala eginez gero, beste zerbitzu-emaile horrek gorde ahal izango du ordura arte emandako zerbitzuei buruzko informazioa.

Halaber, organo gainbegiraleari jakinaraziko dio jardueran jarraitzea eragozten dion beste edozein gorabehera garrantzitsu. Bereziki, haren aurkako edozein konkurtso-prozesu hasten bada, horren berri eman beharko du jakin bezain laster.

d) Adostasunaren ebaluazio-txostena Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioari bidali behar diote, (EB) 910/2014 Erregelamenduaren 20.1 artikuluan adierazitakoaren araberako. Betebeharrak hori betetzen ez bada, zerbitzu-emaileari eta hark ematen duen zerbitzuari kalifikazioa kenduko zaie. Horretaz gain, aipatutako erregelamenduaren 22. artikuluan adierazitako konfiantzazko zerrendatik kenduko dira; baina, horretarako, aldez aurretik, zerbitzu-emaileari errekerimendua egin behar zaio ez-betetzea amaitzeko.

10. artikulua. *Konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren emaileen erantzukizuna.*

Hirugarrenen aurrean, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren emaileek erantzukizun osoa hartuko dute beren gain konfiantzazko zerbitzu elektronikoak emateko beharrezkoak diren eginkizunak eskuordetu dizkieten pertsonen edo beste emaile batzuen jarduketarengatik, barnean hartuta ziurtagiri kalifikatua eman aurretik identitatea egiaztatzeko egin beharreko jarduketak.

11. artikulua. *Konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaileen erantzukizunaren mugak.*

1. Konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emailea ez da erantzule izango zerbitzuak eman dizkion pertsonari edo fede oneko hirugarrenei eragindako kalte-galerengatik, baldin eta pertsona horiek (EB) 910/2014 Erregelamenduan adierazitako kasuren batean edo kasu hauetako batean badaude:

a) Konfiantzazko zerbitzu-emaileari informazio egiazkoa, osoa eta zehatza eman ez izana konfiantzazko zerbitzua eman dezan, bereziki ziurtagiri elektronikoen azaldu behar diren datuei buruz edo ziurtagiria bera emateko edo indarraldia azkendu edo eteteko beharrezkoak diren datuei buruz, zerbitzu-emaileak, behar besteko arretaz jardun arren, ezin izan badu datu horien zehaztugabetasuna atzeman.

b) Zerbitzu-emaileari berandutu gabe ez jakinaraztea –bidegabeko atzerapenik gabe– konfiantzazko zerbitzua ematean eragina duten inguruabarretan izandako edozein aldaketa, bereziki ziurtagiri elektronikoen jasotakoei dagokienez.

c) Zabarra izatea sinadura, zigilua edo webgune-autentifikazioa sortzeko datuak gordetzen, konfidentzialtasuna bermatzen, irispide edo jakinarazte orotatik babesten edo, hala badagokio, datuok irispidean izateko bitartekoak babesten.

d) Ziurtagiri elektronikoa eteteko edo errebokatzeke ez eskatzea zalantzaren bat badago sinadura, zigilua edo webgune-autentifikazioa sortzeko datuen konfidentzialtasuna edo, hala badagokio, datuok irispidean izateko bitartekoen konfidentzialtasuna gordetzeari buruz.

e) Sinadura, zigilua edo webgune-autentifikazioa sortzeko datuak erabiltzea ziurtagiri elektronikoen balio-epea amaitu ondoren, edo konfiantzazko zerbitzuen emaileak ziurtagiriaren indarraldia azkendu edo eten egin dela jakinarazi ondoren.

2. Konfiantzazko zerbitzuen emailea ez da kalte-galeren erantzule izango, baldin eta hartzaileak zabarkeriaz jokutzen badu. Hartzaileak zabarkeriaz jokutzen duela ulertuko da kontuan hartzen ez badu ziurtagiri elektronikoen indarraldia eten egin dela edo indarra galdu duela, edo sinadura edo zigilu elektronikoa egiaztatzen ez badu.

3. Konfiantzazko zerbitzuen emailea ez da kalte-galeren erantzule izango ziurtagiri elektronikoen dauden datuak zehatzak ez badira, baldin eta datu horiek dokumentu publiko edo ofizial baten bidez egiaztatuta bazaizkio eta dokumentu hori erregistro publiko batean inskribatuta badago, hala exijitu ahal bada.

12. artikulua. *Konfiantzazko zerbitzu elektronikoen ez-kalifikatuak ematen hastea.*

Konfiantzazko zerbitzu ez-kalifikatuak emaileek ez dute behar aldez aurretiko administrazio-egiaztapenik jarduera hasteko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko; baina Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioari jakinarazi beharko diote beren jarduera, jardueraren hasieratik hiru hilabetera. Ministerioak konfiantzazko zerbitzu ez-kalifikatuak emaileen zerrenda argitaratuko du bere webgunean, konfiantzazko zerbitzu kalifikatuak emaileen zerrendatik aparte, eta zehatz eta argi azalduko du hor zein diren emaile kalifikatuak eta ez-kalifikatuak ezaugarri propioak eta diferentzialak.

Epe berean, jakinarazi beharko dute hasieran helarazitako datuak aldatu egin direla eta jardunari utzi diotela.

13. artikulua. *Informazioaren segurtasunari loturiko betebeharrak.*

1. Konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaile kalifikatuak eta ez-kalifikatuak Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioari jakinaraziko dizkiote (EB) 910/2014 Erregelamenduaren 19.2 artikuluan adierazitako segurtasun-urraketak edo osotasun-galerak, hargatik eragotzi gabe Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari, beste organismo garrantzitsu batzuei edo ukitutako pertsonari ere jakinaraztea.

2. Zerbitzu-emaileek nahitaez hartu behar dituzte eragiten dieten segurtasun-gorabeherak konpontzeko beharrezkoak diren neurriak.

3. Gorabehera jakinarazten denetik eta, gertatu bada, konpondu denetik gehieneko hilabeteko epean, zerbitzu-emaileek hasierako jakinarazpenean emandako informazioa osatuko dute, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak ezartzen dituen jarraibideen eta formularioen arabera.

IV. TITULUA

Ikuskapena eta kontrola

14. artikulua. *Organo gainbegiralea.*

1. Organo gainbegiralea den aldetik, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak kontrolatuko du jendeari zerbitzuak eskaintzen dizkioten konfiantzazko zerbitzu elektronikoko kalifikatuen eta ez-kalifikatuen emaileek (EB) 910/2014 Erregelamenduan eta lege honetan ezarritako betebeharrak betetzen dituztela.

2. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak erabaki ahal izango ditu (EB) 910/2014 Erregelamendua eta lege hau betetzeko egokiak diren neurriak.

Bereziki, txostenak eta dokumentuak egiteko eta jakinarazteko gidalerroak eman ahal izango ditu, bai eta konfiantzazko zerbitzuei exijitu ahal izango zaizkien betebeharrak teknikoak eta segurtasunekoak betetzeko gomendioak ere, eta konfiantzazko zerbitzuen emaile kalifikatuen adostasuna ebaluatzeko auditoretzako eta ziurtapeneko betekizunei eta arau teknikoek buruzkoak ere bai. Horretarako, hauek hartuko dira kontuan: Kriptologia Zentro Nazionalak bere eskumenen esparruan emandako arauak, jarraibideak, gidak eta gomendioak, eta Europar Batasuneko Sareen eta Informazioaren Segurtasun Agentziak (ENISA) edo Europako eta nazioarteko estandarizazio-organismoek egindako txostenak, espezifikazioak edo arauak.

15. artikulua. *Ikuskapen-jarduketak.*

1. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak beharrezkoak diren ikuskapen-jarduketak egingo ditu, gainbegiratze- eta kontrol-eginkizuna betetzeko. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioari atxikita dauden eta ikuskapena egiten duten funtzionarioak agintari publikotzat hartuko dira beren eginkizunetan.

2. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak entitate independente eta teknikoki kualifikatuetara jo ahal izango du (EB) 910/2014 Erregelamendua eta lege honek esleitzen dizkioten konfiantzazko zerbitzuen emaileen gaineko gainbegiratze- eta kontrol-lanetan lagun diezaioten.

3. Laborategi edo entitate espezializatueta probak egiteko eskatu ahal izango da, betekizun jakin batzuk betetzen direla egiaztatzeko. Hala eginez gero, zerbitzu-emaileek beren gain hartuko dituzte ebaluazio horrek eragindako gastuak.

16. artikulua. *Konfiantzazko zerrenda mantentzea.*

1. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak konfiantzazko zerrenda ezarri, mantendu eta argitaratuko du, lege honi lotutako konfiantzazko zerbitzuen emaile kalifikatuei buruzko informazioarekin eta haiek emandako konfiantzazko zerbitzu kalifikatuekin lotutako informazioarekin batera, (EB) 910/2014 Erregelamenduaren 22. artikuluan adierazitakoaren arabera.

2. Erregelamendu horretan ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatzeko prozeduran, gehienez ere 6 hilabeteko epea egongo da ebazpena eman eta jakinarazteko. Epe hori igarota, ulertu ahal izango da eskaera ezetsi egin dela.

3. Emaile edo zerbitzu bati kalifikazioa errebotatzea –konfiantzazko zerrendatik kenduta– eta zehapen-araubidea aplikatzea independenteak dira.

17. artikulua. *Informazioa eta elkarlana.*

1. Konfiantzazko zerbitzuen emaileek, Egiaztatze Erakunde Nazionalak, adostasuna ebaluatzeko organismoek, ziurtatze-organismoek eta konfiantzazko zerbitzuen emailearekin zerikusia duen beste edozein pertsonak edo entitatek Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioari eman behar diote eginkizunak betetzeko behar duen informazio eta elkarlan guztia.

Ziurtatze-organismoa Zibersegurtasuna Ziurtatzeko Agintaritza Nazionalekoa bada edo hark gainbegiratzen badu, agintaritza horrekin adostuko dira lankidetzamekanismoak eta beharrezko informazioaren edukia.

Konfiantzazko zerbitzuen emaileek baimena eman beharko diete funtzionarioei edo ikuskatzaileei instalazioetara sartzeko eta ikuskapenerako garrantzitsua den edozein dokumentazio kontsultatzeko, eta, hala badagokio, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.6 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da. Ikuskapenetan, gaiko adituek edo perituek lagundu ahal izango diete.

2. Konfiantzazko zerbitzuen emaile kalifikatuei buruzko informazioa Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren Interneteko helbidean argitaratu ahal izango da, informazio hori zabaltzeko eta ezagutarazteko xedez.

3. Beranduenez ere urte bakoitzeko otsailaren 1ean, konfiantzazko zerbitzuen emaile kalifikatuek aurreko urte zibileko jarduera-datuei buruzko txosten bat bidaliko diote Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioari, ministerioak Europako Batzordeari informazioa emateko betebeharra bete dezan.

4. Datu pertsonalak babesteari buruzko arauak hausten badira, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak horren berri emango dio Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari, bai eta datu pertsonalak urratzea dakarten segurtasun-gorabeheren berri ere.

V. TITULUA

Arau-haustek eta zehapenak18. artikulua. *Arau-haustek.*

1. (EB) 910/2014 Erregelamenduko eta lege honetako manuen arau-haustek oso astunak, astunak eta arinak izan daitezke.

2. Arau-hauste oso astunak dira:

a) Izaera bereko arau-hauste astun batengatik zehapena jaso eta bi urteko epean beste arau-hauste astun bat egitea. Ebazpen zehatzaile irmoa ematen denetik hasiko da bi urteko epe hori.

b) Ziurtagiri kalifikatuak egitea ziurtagiriaren titularraren identitateari edo beste inguruabar batzuei edo haren izenean eskatzen duenaren ordezkartza-ahalordeari buruzko aurretiazko egiaztapen guztiak egin gabe –(EB) 910/2014 Erregelamenduan eta lege honetan adierazitakoaren arabera–, baldin eta horrek eragina badu zehapen-prozedura hasi aurreko urtean emandako ziurtagiri kalifikatu gehienetan edo zerbitzu-emailearen jarduera hasi zenetik emandakoetan, denboraldi hori laburragoa bada.

3. Arau-hauste astunak dira hauek:

a) Lege honen arabera ikuskapenak egiteko ahalmena duten organoen ikuskapen-jarduketari erresistentzia, eragozpenak edo aitzakiak jartzea edo uko egitea.

b) Merkatuan konfiantzazko zerbitzuen emaile kalifikatu gisa jardutea, konfiantzazko zerbitzuak zerbitzu kalifikatu gisa eskaintzea edo «EB» konfiantzazko etiketa erabiltzea aipatutako zerbitzuen kalifikazioa lortu gabe.

c) Emaileak ziurtagiri elektronikoak egiten baditu, zerbitzua erabili duen pertsona fisiko edo juridikoaren sinadura, zigilua edo webgune-autentifikazioa sortzeko datuak

biltegitratzea edo kopiatzea, bere kabuz edo hirugarren baten bidez, ez bada titularraren izenean datuok kudeatu behar dituela.

d) Behar bezala ez babestea sinadura, zigilua edo webgune-autentifikazioa sortzeko datuak, datuon kudeaketa bere gomendio utzi bada lege honen 9.1 b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

e) Lege honen 9.3 a) artikuluan adierazitako informazioa ez erregistratzea edo ez gordetzea.

f) Gorabeherak jakinarazteko betebeharra ez betetzea, zeina (EB) 910/2014 Erregelamenduaren 19.2 artikuluan ezarrita baitago, lege honen 13. artikuluan adierazitakoaren arabera.

g) Konfiantzazko zerbitzuen emaile kalifikatuen kasuan, (EB) 910/2014 Erregelamenduaren 24.2 artikuluen b), c), d), e), f), g), h) eta k) letretan eta 24.3 eta 24.4 artikuluetan ezarritako betebeharretako baten bat ez betetzea, lege honetan ezarritako zehaztapenak kontuan hartuta, hala badagokio.

h) Ziurtagiri kalifikatuak egitea ziurtagiriaren titularraren identitateari edo beste inguruabar batzuei edo haren izenean eskatzen duenaren ordezkaritza-ahalordeari buruzko aurretiazko egiaztapen guztiak egin gabe –(EB) 910/2014 Erregelamenduan eta lege honetan adierazitakoaren arabera–, baldin eta arau-hauste oso astuna ez bada.

i) Neurririk ez hartzea edo neurri nahikorik ez hartzea informazio-sistema, sare eta produktu etako segurtasun-gorabeherak konpontzeko, gertatu eta hamar eguneko epean.

j) Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak emandako ebazpenak ez betetzea, ebazpen horien bidez zerbitzu-emaileari errekerimendua egiten bazaio konfiantzazko lege honetan eta (EB) 910/2014 Erregelamenduan ezarritako betekizunak bete ez izana zuzen dezan.

k) Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak ikuskapen- eta kontrol-eginkizunean eskatutako informazioa ez aurkeztea edo behar bezala ez aurkeztea, bigarren errekerimendutik aurrera.

l) Ez betetzea ziurtagiri elektronikoen baten titularraren benetako identitatea egiaztatzeko eta hura egiaztatzen duen dokumentazioa gordetzeko betebeharrak, baldin eta izenorde bat kontsignatzen bada.

m) Konfiantzazko zerbitzuen emaile kalifikatuek eta ez-kalifikatuek ez betetzea (EB) 910/2014 Erregelamenduaren 19.1 artikuluan ezarritako betebeharrak: ematen dituzten konfiantzazko zerbitzuen segurtasunerako arriskuak kudeatzeko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartzea.

n) Lege honetan adierazitako kasuetan, ziurtagiri elektronikoen indarraldia ez azkentzea.

o) Zerbitzu kalifikatuak nahitaezko aseguruak gabe ematea, lege honen 9.3 b) artikuluan adierazitakoaren arabera.

4. Arau-hauste arinak dira hauek:

a) Egiazkoa ez den edo lege honekin eta (EB) 910/2014 Erregelamenduekin bat ez datorren informazioa argitaratzea.

b) Zerbitzu-emaile ez-kalifikatuek jarduera hasi, aldatu edo utzi dutela ez jakinaraztea lege honen 12. artikuluan ezarritako epean.

c) Konfiantzazko zerbitzuen emaile kalifikatuek ez betetzea (EB) 910/2014 Erregelamenduaren 24.2 artikuluen a) eta i) letretan ezarritako betebeharren bat.

d) Konfiantzazko zerbitzuen emaile kalifikatuek ez betetzea Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioari urteko jarduera-txostena urte bakoitzeko otsailaren 1a baino lehen bidaltzeko betebeharra.

e) Ez betetzea lege honen 9.3 c) artikuluan ezarritako komunikazio-eginbeharra.

f) Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak ikuskapen- eta kontrol-eginkizunean eskatutako informazioa ez aurkeztea edo behar bezala ez aurkeztea.

19. artikulua. *Zehapenak.*

1. Aurreko artikuluan jasotako arau-haustek egiteagatik, zehapen hauek jarriko zaizkio arau-hausleari:

- a) Arau-hauste oso astunak egiteagatik, 150.001 eurotik 300.000 eurora bitarteko isuna.
- b) Arau-hauste astunak egiteagatik, 50.001 eurotik 150.000 eurora bitarteko isuna.
- c) Arau-hauste arinak egiteagatik, 50.000 eurorainoko isuna.

2. Ezartzen diren zehapenen zenbatekoa zehazteko, gutxieneko, batez besteko eta gehieneko zenbatekoen graduazioa aplikatuko zaio arau-hauste maila bakoitzari, hauek kontuan hartuta:

- a) Erruduntasun-maila edo intentzionalitatearen existentzia.
- b) Jokabide arau-hauslearen iraunkortasuna edo jarraitutasuna.
- c) Zer-nolako kalteak eragin diren, eta horien munta.
- d) Berrerortzea, urte berean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egiteagatik, hala deklaratu denean administrazio-bidean irmoa den ebazpen baten bidez.
- e) Emaille erantzulearen fakturazio-bolumena.
- f) Arau-haustearen eraginpeko pertsonen kopurua.
- g) Jokabideak eragindako arriskuaren larritasuna.
- h) Zer-nolako ekintzak egin dituen emailak arau-haustearen ondorioak arintzeko.

3. Arau-hauste oso astunak egiteagatik ebazpen zehatzaileak Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren Interneteko webgunean argitaratuko dira, eta, hala badagokio, haien aurka jarritako errekurtsioak adieraziko dira.

20. artikulua. *Zehatzeko ahala.*

Lege honetan jasotakoa ez betetzeagatik zehapenak ezartzea, arau-hauste oso astunak badira, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren titularrari dagokio; arau-hauste astunak eta arinak badira, berriz, Digitalizazioaren eta Adimen Artifizialaren Estatu Idazkaritzaren titularrari.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Fede publikoa eta konfiantzazko zerbitzu elektronikoak.*

Eskumenei dagokienez, lege honetan xedatutakoak ez ditu ez ordeztan ez aldatzen dokumentuetan fede emateko ahalmena legez esleituta duten funtzionarioen eginkizunak arautzen dituzten arauak.

Bigarren xedapen gehigarria. *Administrazio publikoetan erabiltzen diren sistemen ondorio juridikoak.*

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean adierazita dauden identifikazio, sinadura eta zigilu elektronikorako sistema guztiek erabateko ondorio juridikoak izango dituzte.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Nortasun-agiri nazionala eta haren ziurtagiri elektronikoak.*

1. Nortasun-agiri nazional elektronikoa deritzon nortasun-agiri nazionalak elektronikoki egiaztatzen du titularraren identitatea, Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta dokumentuak elektronikoki sinatzeko aukera ematen du.

2. Pertsona fisiko edo juridiko guztiek –publikoak edo pribatuak– nortasun-agiri nazionalaren efikazia onartuko dute titularraren identitatea eta dokumentuan jasota dauden gainerako datu pertsonalak egiaztatzeko, bai eta sinatzailearen identitatea eta haren ziurtagiri elektronikoen sinatutako dokumentuen osotasuna ere egiaztatzeko.

3. Nortasun-agiri nazionala egiteko eskumena duten Barne Ministerioako organoek bete egingo dituzte lege honek ziurtagiri kalifikatuak egiten dituzten konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emailei ezartzen dizkien betebeharrak.

4. Nortasun-agiri nazionalak bere araudi espezifikoak bete beharko du, hargatik eragotzi gabe indarrean dagoen araudia aplikatzea nortasun-agiri nazionalaren ezaugarri partikularrei egokitzen zaien guztian.

Laugarren xedapen gehigarria. *Inteligentzia Zentro Nazionaleko kideen identitatearen sekretua.*

Lege honen 7. eta 8. artikuluetan xedatutakoak ez du eragotziko Inteligentzia Zentro Nazionala arautzen duen maiatzaren 6ko 11/2002 Legean xedatutakoa, kideen identitateari buruzko sekretua gordetzeko betebeharrari dagokionez.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Lehendik dauden zerbitzu-emaile ez-kalifikatuen jardueraren komunikazioa.*

Zerbitzuak ematen ari diren zerbitzu-emaile ez-kalifikatuek beren jardueraren berri eman beharko diote Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioari, lege hau indarrean jarri eta hiru hilabeteko epean.

Salbuetsita daude baldin eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioari eman dituzten zerbitzuak jakinarazi badizkiote lege hau indarrean jarri aurretik.

Bigarren xedapen iragankorra. *Nortasun-agiri nazionala erregelamendu bidez garatzea.*

Nortasun-agiri nazionala erregelamendu bidez garatu arte, indarrean jarraituko du abenduaren 23ko 1553/2005 Errege Dekretuak, zeinaren bidez arautzen baita nola eman nortasun-agiri nazionala eta dokumentu horren sinadura elektronikoko ziurtagiriak.

Xedapen indargabetzailea.

Indargabeturik geratzen dira lege honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, eta bereziki hauek:

- a) 59/2003 Legea, abenduaren 19koa, Sinadura Elektronikoaari buruzkoa.
- b) Informazio Gizarteko eta Merkataritza Elektronikoko Zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legearen 25. artikulua.
- c) Sustapen Ministerioaren 2000ko otsailaren 21eko Agindua, zeinaren bidez onartzen baita ziurtapen-zerbitzu emaileak egiaztatzeko eta sinadura elektronikoko zenbait produktu ziurtatzeko erregelamendua.

Azken xedapenetako lehena. *Lege hau aldatzea: 56/2007 Legea, abenduaren 28koa, Informazioaren Gizartea Bultzatzeko Neurriei buruzkoa.*

Aldatu egiten da Informazioaren Gizartea Bultzatzeko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 56/2007 Legearen 2. artikulua 1. apartatua; aurrerantzean, honela idatzita egongo da:

- «1. Bezeroekin urruneko beste komunikabide batzuk erabiltzeko aukera alde batera utzi gabe, publiko orokorrari garrantzi ekonomiko berezia duten zerbitzuak

ematen dizkioten enpresek solaskidetzatza telematikorako bitarteko seguru bat eman beharko diete erabiltzaileei, izapide hauek behintzat egin ahal izateko:

a) Zerbitzu, hornidura eta ondasunak elektronikoki kontratatzea; kontratuok aldatu, amaitu edo hutsaltzea, eta alderdien arteko edozein egintza edo negozio juridiko egitea, hargatik eragotzi gabe araudi sektorialean ezarritakoa.

b) Bezeroen datuak kontsultatzea; datu horietan, gutxienez azken hiru urteetako fakturazio-historiari eta sinatutako kontratuari buruzko informazioa egongo da, eta, halakorik izanez gero, baldintza orokorrak ere bai.

c) Kexak, gorabeherak, iradokizunak eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkeztea, kontsumitzaileari aurkeztu egin dituela bermatuta eta zuzeneko arreta pertsonala ziurtatuta.

d) Datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, eta datuen tratamenduaren aurka egiteko eskubideak baliatzea, datu pertsonalak babesteko araudi erregulatzailean adierazitakoaren arabera.»

Azken xedapenetako bigarrena. *Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea aldatzea.*

Bat. Aldatu egiten da Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 326. artikulua 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Artikulu honen 2. apartatuan eta (EB) 910/2014 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera jardungo da, baldin eta dokumentu elektronikoaren efikazia interesatzen zaion alderdiak hala eskatzen badu edo dokumentu elektronikoaren autentikotasuna, osotasuna, dataren eta orduaren zehaztasuna edo beste ezaugarri batzuk aurkaratzen badira, eta dokumentu hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 23ko (EB) 910/2014 Erregelamenduan adierazitako konfiantzazko zerbitzu elektronikoz ez-kalifikatu batek egiaztatu ahal badu –barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako identifikazio elektronikoari eta konfiantzazko zerbitzuei buruzko erregelamendua da–.

Bi. Aipatutako 326. artikulua 4. apartatua gehitzen zaio, honela idatzita:

«4. Aurreko apartatuan aipatutako erregelamenduan adierazitako konfiantzazko zerbitzu kalifikaturen bat erabili bada, pentsatuko da dokumentuak bete egiten duela zalantzan jarritako ezaugarria, eta konfiantzazko zerbitzua behar bezala eman dela, baldin eta, desadostasunaren ondorioetarako une garrantzitsuan, emaila eta zerbitzu kalifikatuen konfiantzazko zerrendan egon bada.

Hala ere, dokumentu elektronikoa aurkaratzen bada, aurkaratzaileari dagokio egiaztatze karga. Egiaztatze horien emaitza negatiboa bada, egiaztatzeak eragindako kostuak, gastuak eta eskubideak aurkaratzailearen kontura izango dira soilik. Horretaz gain, auzitegiak, ausarkeriaz aurkaratu duela irizten badu, 300 eurotik 1.200 eurora bitarteko isuna ezar diezaiolke.»

Azken xedapenetako hirugarrena. *Lege hau aldatzea: 34/2002 Legea, uztailaren 11koa, Informazio Gizarteko eta Merkataritza Elektronikoko Zerbitzuei buruzkoa.*

Informazio Gizarteko eta Merkataritza Elektronikoko Zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legea aldatzen da honen arabera:

Bat. 12 ter artikulua gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«12. ter artikulua. *Datu ez-pertsonalen eramangarritasunari buruzko betebeharrak.*

Bitartekaritza-zerbitzuen hornitzaileek, sare sozialetako zerbitzuetan edo informazioaren gizarteko zerbitzu baliokideetan dauzkaten erabiltzaileen datuak

biltegitratzen badituzte, erabiltzaileoi igorri beharko dizkiete, hala eskatzen badiete, eman dizkieten edukiak, hargatik eragotzi gabe ondoren beste hornitzaile bati transmititzea. Erabilera orokorreko eta irakurketa mekanikoko formatu egituratu batean igorri beharko dira.

Era berean, eduki horiek zuzenean transmititu beharko dizkiote erabiltzaileak izendatutako beste hornitzaile bati, teknikoki posible bada, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 95. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Betebehar horiek betetzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 12.5 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da. Erregelamendu hori pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta indarrik gabe uzten du 95/46/EE Zuzentaraua.»

Bi. 35. artikulua 1. apartatuko lehen paragrafoa honela geratuko da idatzita:

«1. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak kontrolatuko du informazioaren gizarteko zerbitzu-emaileek betetzen dituztela lege honetan eta lege hau garatzeko xedapenetan ezarritako betebeharrak, informazioaren gizartearen berezko zerbitzuei dagokienez, bai eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko (EB) 2019/1150 Erregelamenduan ezarritakoak ere, aplikazio-eremuko hornitzaileen partetik –(EB) 2019/1150 Erregelamendua, lineako bitartekaritza-zerbitzuen erabiltzaile profesionalentzat ekitatea eta gardentasuna sustatzeari buruzkoa–.»

Hiru. 36 bis artikulua gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«36. bis artikulua. *Erabiltzaile profesionalak edo webgune korporatiboan erabiltzaileak ordezkatzeko dituzten erakunde eta elkarten komunikazio-eginberrak.*

Erabiltzaile profesionalak edo webgune korporatiboan erabiltzaileak ordezkatzeko interes legitimoa duten erakunde eta elkarteek, baldin eta, (EB) 2019/1150 Erregelamenduaren 14.3 artikuluko betekizunak beteta, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioari eskatu badiote Europako Batzordeak horretarako prestatutako zerrendan sartzeko, berehala jakinaraziko diote ministerio horri beren entitateari eragiten dion eta betekizunak gerora ez betetzea dakarren edozein gorabehera.»

Lau. Honela geratzen da idatzita 37. artikulua lehen paragrafoa:

«Titulu honetan ezarritako zehapen-araubidearen mende daude bai lege hau aplikatu behar zaien informazioaren gizarteko zerbitzu-emaileak, bai (EB) 2019/1150 Erregelamenduaren aplikazio-eremuan dauden hornitzaileak.»

Bost. Hamabi letra –j) letratik u) letrara– gehitzen zaizkio 38. artikulua 3. apartatuari, honela idatzita:

«j) Exijitza kanon bat ordaintzea 12 ter artikuluan adierazitako betebeharrari erantzuteagatik, (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 12.5 artikuluan ezarritako kasuetatik kanpo.

k) Ohiki ez betetzea 12 ter artikuluan adierazitako betebeharra.

l) Lineako bitartekaritza-zerbitzuen hornitzaileek ohiki ez betetzea erabiltzaile profesionalaren identitatea agerian egoteari buruz (EB) 2019/1150 Erregelamenduaren 3. artikulua 5. apartatuan ezarritako betebeharra.

m) Lineako bitartekaritza-zerbitzuen hornitzaileek ohiki ez betetzea zerbitzua murriztu, eten eta amaitzeari buruz dauzkan betebeharrak, hain zuzen

ere (EB) 2019/1150 Erregelamenduaren 4. artikulua 1., 2. eta 3. apartatuetan ezarritakoak.

n) Lineako bitartekaritza-zerbitzuen hornitzaileek edo lineako bilatzaileen hornitzaileek ohiki ez betetzea aplikatzekoak zaizkien eta (EB) 2019/1150 Erregelamenduaren 5. artikuluan ezarrita dauden sailkapen-arloko betebeharrak edozein.

o) Lineako bitartekaritza-zerbitzuen hornitzaileek ohiki ez betetzea eskaintako ondasun eta zerbitzu osagarriei buruz (EB) 2019/1150 Erregelamenduaren 6. artikuluan eskatzen den informazioa baldintza orokorretan sartzeko betebeharrak.

p) Lineako bitartekaritza-zerbitzuen hornitzaileek edo lineako bilatzaileen hornitzaileek ohiki ez betetzea 1. eta 2. apartatuetan eskatutako informazioa baldintza orokorretan sartzeko betebeharrak, ondasun edo zerbitzuen tratamendu bereziaren arloan (EB) 2019/1150 Erregelamenduaren 7. artikulua 3. apartatuan ezarritako zehaztapenekin.

q) Bitartekaritza-zerbitzuen hornitzaileek ez betetzea (EB) 2019/1150 Erregelamenduaren 8. artikulua a) letran ezarritako betebeharrak, eta ohiki ez betetzea aipatutako manua b) eta c) letratan adierazitako betebeharrak.

r) Lineako bitartekaritza-zerbitzuen hornitzaileek ohiki ez betetzea erabiltzaile profesionalak duten datu-irispideaz informatzeko betebeharrak, zeina (EB) 2019/1150 Erregelamenduaren 9. artikuluan ezarrita baitago.

s) Lineako bitartekaritza-zerbitzuen hornitzaileek ohiki ez betetzea (EB) 2019/1150 Erregelamenduaren 10. artikuluan adierazitako betebeharrak hau: beste bitarteko batzuk erabiltzaile beste baldintza batzuk eskaintzeko aukerari jartzen zaizkion murrizketak justifikatzea.

t) Enpresa txikiak ez diren lineako bitartekaritza-zerbitzuen hornitzaileek ez betetzea erabiltzaile profesionalen erreklamazioak izapidetzeko doako barne-sistema bat ezartzeko betebeharrak, (EB) 2019/1150 Erregelamenduaren 11. artikuluan jasotakoaren arabera.

u) Enpresa txikiak ez diren lineako bitartekaritza-zerbitzuen hornitzaileek ez betetzea gutxienez bi bitartekari izendatzeko betebeharrak, edo ez betetzea (EB) 2019/1150 Erregelamenduaren 12. artikuluan bitartekariari buruz ezarritako beste edozein betebeharrak.»

Sei. Hamar letra –j) letratik s) letrara– gehitzen zaizkio 38. artikulua 4. apartatuari, honela idatzita:

«j) 12 ter artikuluan jasotako betebeharrari erantzuteagatik kanona ordaintzeko eskatzea, (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 12.5 artikulua horretarako aukera emanaz gero, muntak kostuen zenbatekoa gainditzen bada.

k) 12 ter artikuluan jasotako betebeharrak ez betetzea, baldin eta hori arau-hauste astuna ez bada.

l) Lineako bitartekaritza-zerbitzuen hornitzaileek ez betetzea erabiltzaile profesionalaren identitatea agerian egotearen arloan (EB) 2019/1150 Erregelamenduaren 3. artikulua 5. apartatuan ezarritako betebeharrak, baldin eta hori arau-hauste astuna ez bada.

m) Lineako bitartekaritza-zerbitzuen hornitzaileek ez betetzea zerbitzua murriztearen, etetearen eta amaitzearen arloan dituzten betebeharrak, hain zuzen ere (EB) 2019/1150 Erregelamenduaren 4. artikulua 1., 2. eta 3. apartatuetan ezarritakoak, baldin eta hori arau-hauste astuna ez bada.

n) Lineako bitartekaritza-zerbitzuen hornitzaileek edo lineako bilatzaileen hornitzaileek ez betetzea aplikatzekoak zaizkien sailkapen-arloko betebeharrak edozein, zeinak (EB) 2019/1150 Erregelamenduaren 5. artikuluan ezarrita baitaude, baldin eta hori arau-hauste astuna ez bada.

o) Lineako bitartekaritza-zerbitzuen hornitzaileek ez betetzea eskaintako ondasun eta zerbitzu osagarriei buruz (EB) 2019/1150 Erregelamenduaren 6.

artikuluaren eskatzen den informazioa baldintza orokorretan sartzeko betebeharra, baldin eta hori arau-hauste astuna ez bada.

p) Lineako bitartekaritza-zerbitzuen hornitzaileek edo lineako bilatzaileen hornitzaileek ez betetzea 1. eta 2. apartatuetan eskatutako informazioa beren baldintza orokorretan sartzeko betebeharra, ondasun edo zerbitzuen tratamendu bereziaren arloan (EB) 2019/1150 Erregelamenduaren 7. artikulua 3. apartatuan ezarritako zehaztapenekin, baldin eta hori arau-hauste astuna ez bada.

q) Lineako bitartekaritza-zerbitzuen hornitzaileek ez betetzea kontratu-klausula espezifikoaren arloan dituzten betebeharrak, hain zuzen ere (EB) 2019/1150 Erregelamenduaren 8. artikuluan ezarritakoak, baldin eta hori arau-hauste astuna ez bada.

r) Lineako bitartekaritza-zerbitzuen hornitzaileek ez betetzea erabiltzaile profesionalak duten datu-irispideaz informatzeko emateko betebeharra, zeina (EB) 2019/1150 Erregelamenduaren 9. artikuluan ezarrita baitago, baldin eta hori arau-hauste astuna ez bada.

s) Lineako bitartekaritza-zerbitzuen hornitzaileek ez betetzea beste bitarteko batzuk erabili beste baldintza batzuk eskaintzeko aukerari jarritako murrizketak justifikatzeko betebeharra, (EB) 2019/1150 Erregelamenduaren 10. artikuluan adierazita baitago, baldin eta hori arau-hauste astuna ez bada.»

Zazpi. Honela geratzen da idatzita 43. artikulua:

«43. artikulua. *Zehatzeko eskumena.*

1. Lege honetan jasotakoa ez betetzeagatik zehapenak ezartzea Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren titularrari dagokio, arau-hauste oso astunak badira; arau-hauste astunak eta arinak badira, berriz, Digitalizazioaren eta Adimen Artifizialaren Estatu Idazkaritzaren titularrari.

Aurrekoa gorabehera, bete ez den ebazpena eman zuen organoari dagokio lege honen 38.2 artikulua a) eta b) letretan aipatutako gaiaren edo entitatearen arabera eskumena duten organoek emandako ebazpenak ez betetzeagatik zehapenak ezartzea. Era berean, Datuak Babesteko Agentziari dagokio lege honen 38.3 c), d) eta i) eta 38.4 d), g) eta h) artikuluetan tipifikatutako arau-hausteak egiteagatik zehapenak ezartzea.

2. Lege honetan araututako zehatzeko ahala baliatzeko, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta hura garatzen duten arauetan horretaz xedatutakoa beteko da. Prozedurak bederatzi hilabete iraungo du hasteko erabakiaren egunetik aurrera, gehienez ere. Prozedura sinplifikatuaren iraupena hiru hilabetekoa izango da, gehienez ere.»

Azken xedapenetako laugarrena. *Azaroaren 23ko 17/2009 Legea, zerbitzuen eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzkoa, aldatu egin da.*

Zazpigarren xedapen gehigarria gehitzen da; eduki hau izango du:

«Zazpigarren xedapen gehigarria. *Diskriminazioaren debekua ez betetzea.*

Desleialtat joko da diskriminazio-debekua ez betetzea, zeina jasota baitago lege honen 16.3 artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko otsailaren 28ko (EB) 2018/302 Erregelamenduan – justifikaziorik gabeko blokeo geografikoa eta barne-merkatuko bezeroen nazionalitate, bizileku edo establezimendu-lekuengatik beste diskriminazio-modu batzuk eragozteko neurriei buruzkoa–, Lehia Desleialaren urtarrilaren 10eko 3/1991 Legearen ondorioetarako, hargatik eragotzi gabe Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren testu bateginean eta beste lege osagarri batzuetan jasotako arau-hausteen eta zehapenen araubidea. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko otsailaren 28ko

(EB) 2018/302 Erregelamenduaren bidez, aldatu egiten dira (EE) 2006/2004 eta (EB) 2017/2394 erregelamenduak eta 2009/22/EE Zuzentaraua.»

Azken xedapenetako bosgarrena. *Eskumen-titulua.*

Legegintza zibilaren, telekomunikazioen eta segurtasun publikoaren arloan Estatuari dagozkion eskumen eskusiboen babespean ematen da lege hau, Espainiako Konstituzioaren 149.1.8, 2.1 eta 2.9 artikuluekin bat etorriz.

Horretaz gain, 3. artikulua eta azken xedapenetako bigarrena ere Espainiako Konstituzioaren 149.1.6 artikulua babespean ematen dira; artikulua horren bidez, Estuati ematen zaio legegintza prozesalaren gaineko eskumen eskusiboa. Bestalde, bigarren xedapen gehigarria Konstituzioaren 149.1.18 artikulua babespean ematen da, Estatuak administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen oinarrien gainean duen eskumen eskusiboari loturik.

Azken xedapenetako seigarrena. *Erregelamendu bidezko garapena.*

Gobernuari ahalmena ematen zaio lege hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren erregelamendu-xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetako zazpigarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Horrenbestez,

Lege hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madriren, 2020ko azaroaren 11n.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN